

ONDARROA. Jolas txokoa, parkea eta Takolo, Pirritx eta Porrotxen saioa lotu ditue

Gabonetako ekitaldiek hilea berotuko dabe

Gabon kanten emonaldia, kontzertuak eta santotomasak dira aukeretako batzuk

Lore Bengoetxea |

Gabon egunak hurrean dirala eta, hainbat ekitaldi antolatu ditue, Ondarroan, abendurako. Kanta emonaldiak, kontzertuak, dantza saioak eta Santo Tomas egunaren inguruan prestatutako ekimenak egun honetarako eskaintzetako batzuk baino ez dira.

Futbol partidu hutsek beteten dabe Gabon inguruetarako antolatu daben egitarauaren zati handi bat. Ez da izango kirol arloan prestatu daben ekimen bakarra. Aurton be, ohitureari jarraituta, Egia-Iriondo lasterke-tea martxan jarriko dabe. Abenduaren 22an ipini dabe Berriatutik Ondarroaraino aringa-aringa egiteko eguna. Horrezaz ganera, hor dago Gazte batzordeak hilaren 14tik 15era lotu dauen eski urteera, edo asteburu berean mendi taldeek egingo daben mendi urteera eta txistorrada.

Dana dala, kultur ekitaldiak izango dira jaun eta jabe hurrengo egunetan. Txomin Agirre ikastoleak gabon abestien saioa prestatu dau 18rako, eta jaiotzea, 20rako. Zubi Zahar ikastoleak, bere aldetik, txosnea ipiniko dau Santo Tomas egunean, alde zaharrean, eta bertso ekitaldia be izango da. Aurten, ganera, eurekin batera Zatozte dendarien alkarteak be hainbat

ekitaldi lotu ditu, Itsas Aurren. Herri kirolak, trikitilariak eta jan-edana egongo da alkarteko en eskutik.

Gabonetan kanta eta musika falta ezin diranez, aukera aukeran egongo dira. Musika Eskolako ikasleek kontzertua emongo dabe hilearen 20an Andra Mari elizan. Trikitixa kalejire-a izango da 21ean, eta Gabonetako Kontzertua be izango da egun horretan, Andra Mari elizan. Bertan, herriko txistulariak, Kantaize Orfeoia eta Unanue Kamara Korala batuko dira.

Gabonetako abestiak

Gabon egunean, goizean eta arratsaldean entzun ahal izango dira Gabonetako kanta. Bazkaldu aurretik kalean dabilzanez Txirimorraski astialdi taldearen eta Musika Eskolako ikasleen saioez gozau ahal izango dabe, Zubi Zahar ikastoleak Olentzerogaz batera kalejire-a egiten daben bitartean. Iluntzean beste osterata bat egingo dabe

Olentzerogaz, eta Unanue Kamara Koralak Gabonetako kanta gehiago ekarriko ditu gogora.

Umeentzako ekitaldien artean, jolas txokoa,

umeen parkea, xake eskolak eta Takolo, Pirritx eta Porrotxen saioak dagoz.



NEKANE AKARREGI

Abesti zaharren ikastarokoak kalerik kale ibiliko dira, kantetan.

KULTUR EKITALDI UGARI

Kont arte ekarriko dabe zinemara

Ohitureari jarraituta, Udalak antzerkia be ekarriko dau. Tauntaun teatroak *Kont arte* antzerki beharra emongo dau Bide Onera zineman hilaren 27an. Erakusketen artean, margoena lotu dabe hilaren 24tik aurrera, eta Gazte Batzordeak be ekitaldi ugari prestatu ditu, beste batzuen artean, herriko taldeen rock kontzertua hilaren 28an, Antzokian. Leku berean, Juan Bidegainen bideo emonaldia izango da 15ean; *Gaurko euskal kanten ekitaldia*, 20an, eta Bertsolari Gazteen saioa eta dantza saioa, 22an. Kresala kultur alkarteak be ekitaldi ugari gertatu ditu, beste batzuen artean: txalaparta ikastaroa, abenduaren 27tik aurrera; bandearen kontzertua, 28an, eta umeen kororen, dantzarien eta bandako kideen emonaldia, 31n.

Olentzarori I. Gutun Sariketea antolatu dau herri ikastetxeak, euskaraz

bialduko deutesiez. «Urtaro honetan gizakiak joera nabarmena agertzen dau besteakanako hartu-emonetarako, norberaren izaerea, sinesmena edo ideologia edozein dala be», argitu dabe.

Adinen arabera

Lau kategoria banatu ditue, adinak kontuan hartuta. Talde baten edo bestean, gutunaren

neurria eta diseinua desbardi-na izango da. Gutunak ikastetxe bakotzak esaten daben lekuan emon behar dira, abenduaren 20rako. Kategoria bakotxean hiruna sari egongo dira; danak be, 30 eurokoak. Ganera, danentzako Olentzaroren garaikurra egongo da.

Epaimahaiko kideak izango dira: Miren Urresti, Jose Mari Urteaga, Maite Rey eta Josu

Etxaburu. Ikastetxe publikoak aukeratuko dau epaimahaiko burua eta idazkaria.

Beharrak irakurrieran, honeek hartuko ditue kontuan: hizkerearen naturaltasuna, zuzentasuna eta aberastasuna; estiloa; mezuaren sakontasuna eta originaltasuna, eta ez dira balorauko euskeraz oker idatzitako beharrak. Hilearen 24rako jakin eragingo dabe zeintzuk diran saridunak. Ondarroako ikastetxe publikoak argitara emoteko eskubidea eukiko dau. Oinarrien ganeko argitasunak ikastetxetan emoten ditue.

LAGURAEAN

ONDARROA

Hainbat ekitaldi antolatu ditue Nafarroako Eguren ganean

Udalbiltzan dagozan ganera-ko herrietan egingo daben lez, Ondarroan be ekitaldiak izango dira, gaur, Nafarroako Eguna dala gogora ekar-teko. Goizean, Nafarroako ikurriña igongo dabe, eta 19:30ean, ekitaldia izango da, Musika Plazan. Herriko bertsolariek saioa eskainiko dabe, Nafarroako ikurriñari aureskua egingo deutesie, Udalbiltzaren manifestua irakurriko dabe, eta Loren Arkotxa Ondarroako alkate eta Udalbiltzako lehendakariak berba egingo dau.

Ipuin kontaketa saioak, gaurtik, liburutegian

Ondarroako Txomin Agirre liburutegian ipuin kontaketa saioak izango dira abenduan. Gaur, Itziar Zubizarreta egongo da bost urtekoei kontu kontari. Ekitaldia umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko antolatutako programearen barruan dago.

AULESTI

Udala Ubilla etxea konpontzen hasi da

Aspaldi hartutako erabagiari jarraituta, Udala Ubilla etxea aterpetxe egiteko konponketekin hasi da. Oraingoan, barruak hustu eta egitura eta teilatu barria egingo dabe. Beharrak amaitzen diranera-ko dotore geldituko dala uste dabe.

Auzobideak ondo ipinten jarraitzen dabe

Urriola (Ziarrera), Malax, Zubero eta Goierrri auzoetako bideetan zatiak barritzen dihardue. Esan dabenez, zeregina nagusiak eginda dagoz, eta laster amaituko dabe.

AGENDEA

LEKEITIO

Sahararen aldeko kanpaina:

Aittitta Txirik botikak batu eta Sahara bialduko ditue hurrengo egunetan.

ONDARROA

Literatura lehiaketea: Ondarroako Udaleko Euskera Batzordeak Agustin Zubikarai IX. Literatura Lehiaketea antolatu dau. Beharrak abenduaren 20rako emon behar dira udaletxean.

Ondarroako historia marrazkietan:

OHZ taldeak herriaren historia liburuan jaso eta saltzen jarri dau. Jose Luis Burgoaren irudietan oinarrituta dago liburua.

L.B. |

Ondarroako ikastetxe publikoak, Udalaren laguntzeagaz, Olentzarori I. Gutun Sariketea antolatu dau, «euskera edo zelako pentsamendu eta sentimenduak adierazoteko bidez hartzan daben euskaldunnei zuzenduta».

Formatoa aukeratueran jarraitu daben erizpidea azaldu dabe. «Gutuna pertsonak gaurkotatzen ganean daukan ikuspegia eta jarrerak adierazoteko modurik trinkoena eta egiazkoena da», di-noe. Eskariok Olentzarori